

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERANTEVILLAKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea administrazio batzarrei obrak eta beste inbertsio batzuk egiteko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantzari**

2020ko ekainaren 17ko osoko bilkuran, Udalbatzak hasierako onespena eman zion administrazio batzarrei obrak eta beste inbertsio batzuk egiteko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantzari. Erabaki hori jendaurrean egon den aldiaren ez da aurkeztu ordenantzaren aurkako erreklamaziorik eta, beraz, erabakia behin betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49 c) artikuluan xedatzen duen bezala.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, behin betiko erabakia argitaratzen da.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aurrekoaz gain, egoki irizitako beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahal izango da.

#### **ADMINISTRAZIO BATZARREI OBRAK ETA BESTE INBERTSIO BATZUK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

##### **1. artikulua. Dirulaguntzen xedea**

1. Ordenantza honen bidez Berantevillako Udalak dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira, udalerriko kontzejuek sustatzen dituzten eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko zerbitzu publikoak garatzera bideratzen diren obrak finantzatzeko helburuaz.

Honako obra hauek soilik lagunduko dira diruz:

1. Kontzeju etxea eta beste eraikin batzuk zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria, baldin eta horietan zerbitzu publikoa ematen bazaie herritarrei.

2. Kirol ekipamenduak zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria.

3. Haurrentzako jolasguneak zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria.

4. Berdeguneetarako eta hiri lorategietarako guneko publikoetako obra berria.

5. Hiri lurzoruan kale publikoen zoladura eta administrazio batzarren bideetatik herrietara eta hilerrietara iristeko bideak zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria.

6. Argiteria publikoaren, etxeak edateko urrez hornitzeko sarearen, euri uren eta ur beltzen saneamendu sarearen, argindarraren, gasaren eta telefonoaren eta haien instalazioen lurpeko kanalizazioak eguneratzeko eta konpontzeko obra berria.

7. Hilerria konpontzea eta/edo eraikitzea.

8. Kontzejuetako elementu bereziak birgaitzeko eta konpontzeko obrak, hala nola ermitak, iturriak, errotak, harraskak, parrokia elizak..., baldin eta administrazio batzarrarenak badira edo haren jabetza edo erabilera jabeak laga badio dagokion administrazio batzarrari. Erabileraren lagapenak indarrean egon beharko du obra bukatzen den egunaren hurrengo hamar urtean.

9. Biomazaz elikatutako berokuntza zentraleko obra komunitarioak, administrazio batzarrek sustatuak.

10. Landa bideetan egindako obrak.

11. Inbertsioak hiri altzarietan.

12. Arabako Foru Aldundiaren ObraTxikien Programak diruz laguntzen dituen obra guztiak.

2. Salbuespen gisa, udal interes handia duten beste obra batzuk diruz lagundu ahal izango dira, udalbatzak gehiengo osoz justifikatu eta onartu ondoren.

3. Ez da emango dirulaguntzarik administrazio batzar bakoitzak jabetzaz edo beste batek lagata dauzkan instalazioak mantentzeko.

## 2. artikulua. Erakunde onuradunak

Onuradun izango dira Berantevillako udalerriko kontzejuak, legez erataka eta erregistratuta badaude.

Erakunde eskatzaileak egunean izan beharko ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eskaera aurkezten den garaian, eta hala jarraitu beharko du prozesu osoan zehar.

## 3. artikulua. Aurkeztutako eskaerak balioesteko irizpideak

1. Diruz lagunduko den zenbatekoa honako irizpide hauen arabera eskuratutako puntuazioaren arabera izango da:

a) Herriko biztanle kopurua: Biztanleria tarteak ezartzen dira eta, gehienez ere, 20 puntu eskura daitezke.

BIZTANLE KOPURUA	PUNTUAZIOA
0-75 biztanle	20 puntu
75 biztanle baino gehiago	15 puntu

b.) Finantzaketa: Finantzaketa tarteak ezartzen dira eta, gehienez ere, 20 puntu eskura daitezke. Finantzaketa: baliabide propioak eta emandako beste laguntza eta mailegu batzuk.

FINANTZAKETA	PUNTUAZIOA
Guztizko zenbatekoaren % 75 baino gehiago	20 puntu
Guztizko zenbatekoaren % 50 eta % 74 artean	15 puntu
Guztizko zenbatekoaren % 49 baino gutxiago	10 puntu.

c.) Beste administrazio publiko batzuen dirulaguntza planetan eskaerak aurkeztea: Beste erakunde publiko batzuei dirulaguntzak eskatzea sustatzeko, puntuak emango dira obra edo inbertsioa finantzatzeko eskatutako dirulaguntza motaren arabera; gehienez ere 25 puntu.

DIRULAGUNTZA MOTA	PUNTUAZIOA
Obra txikiak	25 puntu
Obra eta Zerbitzuen Foru Plana	15 puntu
Beste erakunde batzuen beste dirulaguntza batzuk	15 puntu

d.) TEFFFren diru sarrerak: Arabako Foru Aldundiak administrazio batzar bakoitzari obra egin nahi duen urteko TEFFFtik ematen dion diru kopuruaren arabera, honako puntu hauek emango dira:

TEFFF-KO DIRU SARRERAK	PUNTUAZIOA
6.000€ edo gutxiago	3 puntu
6.001 eta 10.000 € bitartean	2 puntu
10.001 € baino gehiago	1 puntu

e.) Inbertsio mota

- Kontzeju etxea eta beste eraikin batzuk zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria, baldin eta horietan zerbitzu publikoa ematen bazaie herritarrei. – 32 puntu

- Biomazaz elikatutako berokuntza zentralako obra komunitarioak, administrazio batzarrek sustatuak. – 32 puntu

- Argiteria publikoaren, etxeak edateko urez hornitzeko sarearen, euri uren eta ur beltzen saneamendu sarearen, argindarraren, gasaren eta telefonoaren eta haien instalazioen lurpeko kanalizazioak eguneratzeko eta konpontzeko obra berria. – 30 puntu

- Kontzejuetako elementu bereziak birgaitzeko eta konpontzeko obrak, hala nola ermitak, iturriak, errotak, harraskak, parrokia elizak..., baldin eta administrazio batzarrenak badira edo haren jabetza edo erabilera jabeak laga badio dagokion administrazio batzarriari. Erabileraren lagapenak indarrean egon beharko du obra bukatzen den egunaren hurrengo hamar urtean. – 25 puntu

- Kirol ekipamenduak zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria. – 20 puntu

- Haurrentzako jolasguneak zaharberritzeko eta konpontzeko obra berria. – 20 puntu

- Berdeguneetarako eta hiri lorategietarako gune publikoetako obra berria. – 20 puntu

- Hilerria konpontzea eta/edo eraikitzea. – 20 puntu

- Landa bideetan egindako obrak. – 20 puntu

- Inbertsioak hiri altzarrietan. – 10 puntu

2. Ez da dirulaguntzarik emango Berantevillako Udalak azken 5 urteetan diruz lagundu dituen zerbitzu publikoen gaineko obretarako. Epe hori, diruz lagundutako azken obra fasetik aurrera kontatuko da.

#### 4. artikulua. Zenbatekoa eta mugak

1. Ekitaldi bakoitzean ematen den dirulaguntzaren zenbateko osoa ezin daiteke izan Berantevillako Udalaren urte bakoitzerako aurrekontuko 943.734.000 partidan esleitutako zenbatekoa baino handiagoa.

Obra fase batean baino gehiagotan eginez gero, fase horietan emandako dirulaguntza, guztira, ezin daiteke gehienezko muga baino handiagoa izan.

2. Administrazio batzar guztiei eman beharreko guztizko zenbatekoa indarrean dagoen udal aurrekontuaren aurrekontu aplikazioan esleitutako gehieneko zenbatekoa baino handiagoa bada, bakoitzari guztizko zenbatekoaren gainean dagokion ehunekoaren arabera kalkulatu da bakoitzari eman beharreko behin betiko zenbatekoa.

3. Eskaera bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera, udalak diruz lagunduko du obraren kostuaren defizita, honela:

– 35 puntura arte: dirulaguntzarik ez.

– 36-59 puntu: defizitaren ehuneko 60 edo obraren ehuneko 15, ez badu erakunde publikoen dirulaguntzarik jaso.

– 60-90 puntu: defizitaren ehuneko 70 edo obraren ehuneko 25, ez badu erakunde publikoen dirulaguntzarik jaso.

– 91 puntu baino gehiago: defizitaren ehuneko 80 edo obraren ehuneko 35, ez badu erakunde publikoen dirulaguntzarik jaso.

4. Administrazio batzar berak obra baterako baino gehiagorako eskaera aurkez dezake, baina honako muga hauek izango dira:

a. Administrazio batzar batek eskabide bat baino gehiago aurkezten badu, bigarren eskaera eta hurrengoak bakarrik onartuko dira izapidetzeko, baldin eta administrazio batzar bakoitzari dirulaguntza bat emateko proposamena egin ondoren aurrekontu kreditua badago.

Administrazio batzar bakoitzak aurkeztu duen lehen eskabidea ebazteko 4. artikuluko bigarren apartatuan xedatutakoa aplikatu behar bada, ez da bigarren eskaeren instrukziorik egingo, eta hala jasoko da emakida ebazpenean.

b. Bi eskabide edo gehiago aurkezten badira, lehenik eta behin, administrazio batzar eskatzaileari kostu handiena dakarkiona izapidetuko da.

c. Bigarren obraren eta ondorengo zenbatekoa aurrekontu aplikazioan erabilgarri dagoen kredituaren bidez mugatuko da, eta ez du inola ere murriztuko eskatutako lehen obragatik administrazio batzarrei eman beharreko zenbatekoa.

d. Bi administrazio batzarrek edo gehiagok obra bat baino gehiagorako eskabidea aurkeztu badute, geratzen den kredituarekin dirulaguntza emateko, artikuluko honen bigarren apartatuan ezarritako irizpide bera aplikatuko da.

5. Artikulu honetako 1. apartatuan adierazitako aurrekontu aplikazioan aurrekontu esleipenik ez badago, ezin izango da dirulaguntza eskabiderik aurkeztu.

## **5. artikulua. Dirulaguntza eskatzea eta ordaintzea: dokumentazioa eta epeak**

### **1. Eskabideak aurkeztea**

A. Dirulaguntza eskatzeko epea urte bakoitzeko irailaren 1a eta urriaren 31 bitartekoa izango da.

B. Eskaera egiten den urtearen aurreko urteko irailaren 1a eta abuztuaren 31 bitartean egingo dako obretarako eskatu ahal izango da dirulaguntza.

C. Dirulaguntza hauek jaso ahal izateko dokumentazioa aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa espresuki eta formalki onartzea.

### **2. Aurkeztu beharreko agiriak:**

A. Eskabidea, eredu ofizialean, behar bezala beteta eta sinatuta. Eskabide erdua I. eranskin gisa erantsi da.

B. Udalak emandako obra baimena.

C. Diruz lagundu beharreko obren aurrekontua.

Obra eginda badago, jatorrizko faktura eta ordainketaren banku egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

Zerga eta aurrekontu araudia aldatu eta iruzurraren aurkako prebentzio eta borroka jarduerak areagotzeko finantza araudia egokitzeari buruzko urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikuluan xedatutakoa betez, ezin izango dira eskudirutan ordaindu parte hartzen duten alderdietako batek enpresaburu edo profesional gisa jarduten duen eragiketak, baldin eta 2.500 euro edo gehiagoko zenbatekokoak badira, edo haren diruzko kontrabalioa. Beraz, ez da onartuko eskudirutan zenbateko hori baino gehiago ordaindu izanaren egiaztagiririk.

D. Helburu bererako lortutako beste dirulaguntza batzuen ebazpenen kopia.

E. Zerga betebeharrak (Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, bai eta Berantevillako Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduran ez dagoela egiaztatzen dutenak ere

3. . Dirulaguntzak jasotzeko, II. eranskineko eskabide ereduarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

A. Jatorrizko faktura, udalak konpultsa dezan.

B. Aurkeztutako faktura ordaindu izanaren banku egiaztagiria.

C. Jasotako beste dirulaguntza batzuen ziurtagiriak.

Benetan justifikatutako gastuen zenbatekoa hasierako aurrekontuan eta eskaeran jarritako kostua baino txikiagoa bada, ordainduko den dirulaguntza dagokion ehunekoa aplikatuz murriztuko da.

## **6. artikulua- Instrukzioa eta ebazpena**

1. Alkatetzak izango du espedientea bideratzeko eskumena.

2. Udalbatzak izango du ebazteko eskumena, ogasun arloan eskumena duen informazio batzordeak aurretiaz baieztatu irizpena emanda.

Udalbatzaren erabakiak arrazoitua izan behar du eta, gutxienez, erakunde eskatzailearen izena edo dirulaguntza ematen zaien eskatzaileen zerrenda jaso behar du.

3. Espedientearen instrukzioan lan hauek egin behar dira:

– Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak eskatu, besteak beste, arloko teknikariei eta idazkari kontuhartzaileari.

– Eskaerak ebaluatu, oinarri hauetan zehazten diren balioespen irizpideen arabera.

## **7. artikulua. Onuradunen betebeharrak**

a. Dirulaguntza ordaintzeko eskaera aurkeztea, obra amaitu eta hilabeteko epean, eta aldundiak eta beste administrazio batzuek emandako dirulaguntzen likidazioa egitea.

b. Urteko kontuak aurkeztea (gastuak, diru sarrerak eta kutzako izakinak), behar bezala onartuta eta Arabako Foru Aldundiak eskatutako formatuan, betiere kontuei dagokien urtearen hurrengo urteko maiatzaren 1a baino lehen, edo erregelamenduz ezarritako egunean.

c. Udalarekin dituen zorrak ordainduta izatea, eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

d. Dirulaguntza ematea arrazoitzen duen helburua betetzea, proiektua egitea, jarduera gauzatzea edo haren jarrera izatea.

e. Udalaren aurrean baldintzak betetzen direla justifikatzea, bai eta dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela edo helburua bete dela ere.

f. Kontrol organo eskudunek egin beharreko egiaztapen jarduerak onartzea, eta jarduketa horietan eskatzen zaien informazio guztia ematea.

g. Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.

h. Dirulaguntzaren xede den obraren finantzaketa publiko dela agertuz publizitate egokia egitea.

i. Itzulketa egiteko arrazoietakoren batean sartuta egonez gero, jasotako zenbatekoa itzuli egin beharko da.

#### **8. artikulua. Itzultzea**

Kontzeju onuradunak dirulaguntzaren xede den obra edo proiektua egin beharko du, eta dirulaguntza ematea eragin zuten jokabideak hartu, onartutako konpromisoak betez.

Hori egiten ez badu, jasotako kopuru osoa edo zati bat itzultzeko eskatuko zaio eta, jasotako kopuruak itzultzeaz gain, ordainketa egin denetik itzultzea erabakitzen den arteko berandutze interesak eskatuko zaizkio, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrek ezarritako zenbatekoan, udal honek onartutako dirulaguntzen ordenantza orokorrean adierazitako kasuetan, egoki izan daitezkeen ekintza penalak gorabehera.

Hona hemen dirulaguntza itzultzeko arrazoiak:

a. Dirulaguntza jasotzeko baldintzen gainean gezurra esan bada edo dirulaguntza ez ematea ekar zezakeenik ezkutatu bada.

b. Proiektua osorik edo zati batean ez betetzea, edo dirulaguntza ematea eragin duen jokabidea ez hartzea.

c. Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo justifikazioa behar bezalakoa ez bada.

d. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek 18.4 artikuluan jasotzen duen zabalkunderako bitartekoak hartzeko betebeharra betetzen ez bada.

e. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasota dauden egiaztatze eta finantza kontrolerako jardunei aurka egitea, aitzakia jartzea, oztupoak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitateko, erregistroko edo dokumentuak kontserbatzeko betebeharrak ez betetzea ere, horren ondorioz ezinezkoa bada egiaztatzea jasotako funtsei emandako erabilera, helburua bete den ala ez edo helburu bererako beste diru sarrera batzuk, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatutatik etorriak direla ere.

f. Udalak ezarritako betebeharrak eta kontzeju onuradunek hartutako konpromisoak ez betetzea.

g. Emandako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio edo erakunde batzuenekin batera, egin beharreko obraren edo inbertsioaren kostuaren ehuneko 95 gaingitzen badu, obraren edo inbertsioaren kostuaren gaineratik lortutako soberakina itzuli beharko da.

h. Legeak ezarritako beste edozein.

#### **9. artikulua. Konturako ordainketak**

Administrazio batzarrak, urteko kontuak aurkeztuz, frogatzen baldin badu ezinezkoa dela diruz lagundutako obra bati dagokion fakturaren ordainketari aurre egitea, udalak fakturaren zenbatekoa sartuko du administrazio batzarraren kontuan, dirulaguntzaren konturako ordainketa moduan.

Administrazio batzarrak ordainagiria aurkeztu beharko dio enpresa hartzekodunari 10 eguneko epean, udalaren banku transferentzia jasotzen duen egunetik kontatuta.

Udalak konturako ordainketa moduan sartuko duen zenbatekoa ezin daiteke inoiz izan emandako dirulaguntza baino handiagoa.

#### **10. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

Laguntza horiekin batera beste laguntza edo dirulaguntza batzuk ere eskura daitezke.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste laguntza, dirulaguntza edo baliabide batzuekin batera, ezin daiteke inoiz izan diruz lagundutako jardueraren kostuaren ehuneko 100 baino handiagoa.

Onuradunak helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabiderik lortzen badu, horren berri eman beharko dio dirulaguntza ematen duen organoari.

#### **11. artikulua. Interpretazioa**

Oinarri hauen interpretazioaz sortzen diren zalantzak alkateak ebartziko ditu, teknikari eskudunen laguntzarekin.

#### **12. artikulua. Arau hausteen erantzuleak**

Dirulaguntzei buruzko administrazioko arau hausteen arduradunak izango dira, egiteagatik edo ez egiteagatik, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, arau hauste gisa tipifikatutako kasuetan sartzen diren administrazio batzarreko kideak.

#### **13. artikulua. Erantzukizunetik salbuestea**

Lege horretan tipifikatutako egite edo ez-egiteek ez dute erantzukizunik sortuko dirulaguntzen arloko arau hauste administratiboagatik, honako kasu hauetan:

- Ezinbesteko kasuetan.
- Erabaki kolektibo baten ondorio direnean, beren botoa salbatu dutenentzat edo erabaki hori hartu zen bilerara joan ez direnentzat.

#### **14. artikulua. Arau hausteen eta zehapenen araubidea**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako araubidea aplikatuko da.

#### **15. artikulua. Indarrean jartzea**

Behin betiko onetsi den ordenantza hau ALHAOn argitaratuko da oso-osorik eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 65.2. artikuluan ezarritako epea igaro ondoren jarriko da indarrean.

Berantevilla, 2020ko irailaren 4a

*Alkatea*

*MARIO PEREA ANUNCIBAY*

**I. ERANSKINA****BERANTEVILLAKO UDALERRIKO ADMINISTRAZIO BATZARREK SUSTATUTAKO  
OBRETARAKO ETA INBERTSIOETARAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA**

ESKAERA AURKEZTEN DUEN ADMINISTRAZIO BATZARRA (eskaera bat obrako edo jarduerako):

ADMINISTRAZIO BATZARRA	IFK
------------------------	-----

ORDEZKARIA	NANa
------------	------

**JAKINARAZPENETARAKO DATUAK**

Kalea	Zk.	Solairua	Herria
-------	-----	----------	--------

Posta kodea	Udalerria	Probintzia
-------------	-----------	------------

Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikor zk.
--------------------	--------------	-------------

KONTU KORRONTE ZENBAKIA (IBANa idatzi)
--

ONDOREN AZALTZEN DEN OBRARAKO DIRULAGUNTZA EMATEA ESKATZEN DU:

--



## ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA (ADIERAZI X BATEZ):

	Berantevillako Udalak emandako obra baimena
	Obraren aurrekontua
	Obra/inbertsio bererako beste erakunde batek emandako dirulaguntza ebazpena Adierazi zein: _____
	Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria
	Zerga betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria
	Obraren faktura
	Obra ordaindu izanaren banku egiaztagiria
	Helburu bererako beste dirulaguntza bat kobratu izanaren ziurtagiria
	Beste batzuk: (Adierazi zein)

## ESKATZAILEAK, BERE ERANTZUKIZUPEAN, ADIERAZTEN DU:

	Beste administrazio publiko edo pribatu batzuek ez diotela dirulaguntzarik ordaindu kontzeptu beragatik, eta administrazio batzarrak ordaindu duela kostu osoa.
	Ez diela beste administrazio publiko edo pribatu batzuei dirulaguntzarik eskatu kontzeptu beragatik, eta batzarrak ordaindu duela kostu osoa.
	Kontzeptu beragatik beste dirulaguntza batzuk jaso dituela, hain zuzen ere, honako zenbateko hau: €
	Dirulaguntza eskatu duela kontzeptu beragatik, baina oraindik ez dela ebazpenik eman.
	Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela prozedura osoan zehar.

\_\_\_\_\_ (E)KO ADMINISTRAZIO BATZARREKO LEHENDAKARIA

(Data eta izenpea)

DATUEN BABESA	
Arduraduna	Berantevillako Udala
Xedea	Dirulaguntzak ematea
Legitimazioa	Datuen tratamendua legezko betebeharrak eta/edo interesdunen baimenak legitimatzen du
Hartzaileak	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da beste lagapenik egingo, legezko betebeharra izan ezean.
Eskubideak	Interesdunak Berantevillako Udalaren aurrean baliatu ahal izango ditu bere eskubideak (Kale Nagusia 21, 01211), hura baita arduraduna. Datuen kontserbazioa legez agindutakoa izango da, datuen xedearen arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak egiteko.

**II. ERANSKINA****BERANTEVILLAKO UDALERRIKO ADMINISTRAZIO BATZARREK SUSTATUTAKO  
OBRETARAKO ETA INBERTSIOETARAKO EMANDAKO DIRULAGUNTZA ORDAINTEKO  
ESKAERA**

ESKAERA AURKEZTEN DUEN ADMINISTRAZIO BATZARRA (eskaera bat obrako edo jarduerako):

ADMINISTRAZIO BATZARRA	IFK
------------------------	-----

ORDEZKARIA	NANa
------------	------

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK			
----------------------------	--	--	--

Kalea	Zk.	Solairua	Herria
-------	-----	----------	--------

Posta kodea	Udalerria	Probintzia
-------------	-----------	------------

Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikor zk.
--------------------	--------------	-------------

KONTU KORRONTE ZENBAKIA (IBANa idatzi)
--

ESKATZEN DU ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTEN DIREN AGIRIAK AURKEZTUTZAT JO DAITEZELA ETA ORDAIN DAKIOLA UDALBATZA HONEN OSOKO BILKURAK EMANDAKO DIRULAGUNTZA. DIRULAGUNTZA OBRA HONENGATIK EMAN ZAIO:

--

## ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA (ADIERAZI X BATEZ):

	Obra/inbertsio bererako beste erakunde batek emandako dirulaguntza ebazpena Adierazi zein: _____
	Obraren faktura
	Obra ordaindu izanaren banku egiaztagiria
	Helburu bererako beste dirulaguntza bat kobratu izanaren ziurtagiria
	Beste batzuk: (Adierazi zein)

\_\_\_\_\_ (E)KO ADMINISTRAZIO BATZARREKO LEHENDAKARIA

(Data eta izenpea)

## DATUEN BABESA

Arduraduna	Berantevillako Udala
Xedea	Dirulaguntzak ematea
Legitimazioa	Datuen tratamendua legezko betebeharrak eta/edo interesdunen baimenak legitimatzen du
Hartzaileak	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da beste lagapenik egingo, legezko betebeharra izan ezean.
Eskubideak	Interesdunak Berantevillako Udalaren aurrean baliatu ahal izango ditu bere eskubideak (Kale Nagusia 21, 01211), hura baita arduraduna. Datuen kontserbazioa legez agindutakoa izango da, datuen xedearen arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak egiteko.